



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

ALDUNDIAK GIZARTE-ZERBITZU ETA -PRESTAZINOEN 43.000 IKUSKAPEN- ETA KONTROL-JARDUKETA BAINO GEHIAGO EGIN EBAZAN 2021EAN

- Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatuak Gizarte Zerbitzuen eta Prestazinoen Ikuskapen eta Kontrolerako Plan Orokorraren 2021eko balantzea aurkeztu dau Bizkaiko Batzar Nagusietan.
- Ikuskapen-lan honeek izan ziran: “3.133” jarduketa zentroetan eta “34.108” prestazinoen eta “5.883” etxeren barrikuspena. Ganera, prestazinoen, hitzarmenen edo diru-laguntzen “98 milioi eurotan” jarri zan lupea, eta horreen “% 1,87” barrikustea eskatu da.

(Bilbon, 2022ko maiatzaren 23an). Azken urteotan ohikoa danez, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako diputatua Bizkaiko Batzar Nagusietara etorri da, Gizarte Zerbitzuen eta Prestazinoen Ikuskapen eta Kontrolerako Plan Orokorraren balantzea egiteko. Foru Aldundiko “zortzi” zerbitzuren lana jaso ostean, Gizarte Ekintza Sailak baieztu dau igaz “43.136” ikuskapen- eta kontrol-jarduketa egin zirala. Txostenak bost taldetan banatzen ditu ekintza horreek: instalazinoei jagokenez zentroetako araudia betetea; instalazinoetan personak kontroletako, artatzeko eta zaintzeko egiten dan lana; etxeetan emoten diran arretea eta zaintzea; gizarte arloko prestazinoak; eta hitzarmenen eta diru-laguntzen kontrola.

Igazko datuek “erakusten” dabenez, Aldundiak kontrol “zorrotza” egiten dau, eta Ikuskaritza eta Kontrol zerbitzua be “ondo” dabil, adierazo dau Murillok. “Lan itzela” egiten dau, gizarte-zerbitzuen finantzaketea “iritsi behar dauenarengana iristen dala” zaintzeko. Lan horrek “zaurgarritasun handieneko” egoeran dagozan personei arretea emotearen inguruko “bermea eta nasaitasuna” emoten deusku. Horretarako, Murillok laburbildu dauenez, ekintza horreen barruan “3.133” kontrol eta ikuskapen jarduketa egin dira zentroetan; “34.108” prestazino barrikusi dira, eta “5.883 etxe” bisitau dira. Ganera, prestazinoen, hitzarmenen edo diru-laguntzen “98 milioi euro” fiskalizau ziran, eta horreen “% 1,87” barrikustea eskatu da.

Murillok txostenaren magnitude nagusiak zehaztu ditu, zeharka bada be, lurraldeko gizarte-zerbitzuetako zentroetako instalazinoen ikuskapen- eta kontrol-datuei buruzko lehenengo blokeari jagokozanak oso gaintetik aitatuz; izan be, datu horreek daborduko emon ziran zezeilaren 22ko batzordean, “aurrerapen” moduan. Halanda be, Murillok gogorarazo dau bere ardurapean dagozan zentro “guztiak” ikuskatu zirala, hau da,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“% 10eko igoerea” izan zala, eta Banakako Arreta Planen (BAP-API) “% 5a” barrikusi zala.

Zentroetako arretaren eta zaintzaren kontrolari buruzko txostenaren bigarren blokeari jagokonez, foru-diputatuak laburbildu dauenez, “2.592 jarraipen” egin ziran, hau da, aurreikusitakoa baino “% 28” gehiago. Adinekoen zentroi jagokenez, “324 esku-hartze” egin ziran, aurreikusitako % 5aren gainera. Desgaitasuna daukien personakaz behar egiten daben zentroetan, 2020an ez zan ikuskapenik egin, pandemia zala eta, eta horreen “% 10a” ikuskatzeko helburua bete da. Umeen zerbitzuari jagokonez, “1.556” adinbako dagozala egiaztatu da; horreetatik 1.186 egoitzetan egozan, eta 370 familiakaz. Emakumeentzako zentroi jagokenez, % 100ekoa izan da ikuskapena, eta bazterkeria-arriskuan dagozan personak artatzen dituen programetan, barriz, “% 91koa” –259 kasu–.

Etxeko zainketei jagokenez (txostenaren hirugarren atala), Gizarte Ekintza Sailak “5.883 berrikuspen” egin ditu, hau da, laguntzaren bat jasoten dabenen “% 27”, urtearen hasieran ezarritako helburuaren gainera, hau da, lau egoitzetatik bat aztertu da. Azterlan horretan, “241 gorabehera” aurkitu dira. Egindako ikuskapenen “% 4a” osatzen dabe, eta ehuneko hori aurreko urtekoa baino puntu bi txikiagoa da.

Murillok geldialdia egin dau taldeen aurrean egin dauen agerraldian, gorabehera horreen tipologia zehazteko. Horreen “erdiak” izaera “administratiboa” izan eben, batez be zaintzaileen titulartasun-aldaketek eragindakoak. “38” kasutan, preminazko jarduketea egin zan, eta “10” kasutan, tratu txarrak egoteko arriskuagaitik jardun zan. Azkenean, kasu bakar batean baieztu zan tratu txarrak izan zirala etxean. Ganera, “50” bisitatan (ikuskapenen % 0,85), zaintzaileen “gainkarga” detektatu eben. Aurreko urteakaz alderatuta, murrizketa “nabarmena” izan da: 2019an, “76” kasu, eta 2022an, “91”. Murillok adierazo dau igaz “ez zala kasurik bialdu Fiskaltzara”.

Laugarren eta bosgarren ataletan, alde batetik, gizarte arloko prestazinoak kontrolatzen dira, eta, bestetik, hirugarren sektorerari hitzarmenen eta diru-laguntzen bidez iristen dan finantzaketea. Sailak hainbat partida eskatu ditu, baliabideen amaieran egon diran arazoak dirala-eta itzultzeko. Halan, “69 milioitik gora” aztertzea ekarri eben (2020an baino hiru gehiago) “34.108” gizarte-prestazinoen azterketetan, hartzaileei “1.605.515 euro” itzultzea eskatu jaken. Horreek barrikusitakoen % 2,41 izan ziran, eta aurreko urtean % 3,12. Ganera, hitzarmenetan eta diru-laguntzetan emondako “ia 29 milioi” –28.950.508– be aztertu ziran. Itzultzeko eskaerea “% 0,81era” heldu zan, hau da, 233.646 euro.

Batzar Nagusietako talde batzuen eskariz, Murillok azkenengo ikuskapen planak interneten argitaratzeko konpromisoa hartu dau. Tipologiaren araberrako ikuskapenen ehunekoaren arteko aldeaz galdetuta, diputatuak zehaztu dau zentro txikien % 100



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

aztertzen dirala, eta ganerakoen kasuan “zentzuzko” ehunekoa ikuskatzen dala, eta horrek “gertatzen danera behar beste gerturatzeko” aukerea emoten dauela, jardun ahal izateko. Pandemiak eragindako plan bereziei jagokenez, Murillok adierazo dauenez “batzuk daborduko ez daukie zentzurik” kutsatzeen bilakaerarengaitik eta ondorioengaitik, egoitzak ikuskatzeaz arduratzen diran lau PCI teknikariek euren lanetan jarraitzen daben arren.

GUFE-REN ETA BIZKAIKO TUTORETZA ERAKUNDEAREN BALANTZEA

Beste alde batetik, batzordeak aho batez onartu dau, EH Bilduk eskatuta, Aldundiaren esku dagozan GUFeko eta Bizkaiko Tutoretza Erakundeko arduradunen agerraldia, legegintzaldi honetan gauzatu eta aurreikusi dituen proiektuen barri emon daien. Arduradun horreek Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatuagaz batera etorriko dira, parlamentuko talde guztiek diputatua be bertan egotea erabagi dabelako, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek eskatuta.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN REALIZÓ MÁS DE 43.000 ACTUACIONES DE INSPECCIÓN Y CONTROL DE LOS SERVICIOS Y PRESTACIONES SOCIALES EN 2021

- El diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo presenta en las Juntas Generales de Bizkaia, el balance del Plan General de Inspección y Control de Servicios y Prestaciones Sociales de 2021.
- Las labores de inspección alcanzaron las “3.133” actuaciones en centros, y la revisión de “34.108” prestaciones y “5.883” hogares. Asimismo, se puso la lupa en “98 millones de euros” de prestaciones, convenios o subvenciones, de los cuales se ha solicitado la revisión del “1,87%”.

(Bilbao, a 23 de mayo de 2022). Como es habitual en los últimos años por estas fechas, el diputado de Acción Social, Sergio Murillo, comparece en las Juntas Generales de Bizkaia para hacer balance del Plan General de Inspección y Control de Servicios y Prestaciones Sociales. Tras recogerse el trabajo de “ocho” servicios de la Diputación, el departamento de Acción Social ha confirmado que se realizaron el año pasado “43.136” actuaciones de inspección y control. El informe distribuye estas acciones en cinco bloques: el cumplimiento de la normativa en los centros respecto a las instalaciones; el control, la atención y los cuidados de las personas en los mismos; la atención y los cuidados en los hogares; las prestaciones sociales; y el control de los convenios y las subvenciones.

Los datos del año pasado “demuestran” que la Diputación realiza un control “exhaustivo” y que el servicio de Inspección y Control funciona “bien”, ha dicho Murillo. Hace una “ingente labor” para vigilar que la financiación de los servicios sociales “llegue a quien tiene que llegar”. Este trabajo nos da “la garantía y la tranquilidad” de que se atiende a las personas en situación “de mayor vulnerabilidad”. Y para ello, Murillo ha resumido que, dentro de esas acciones, se han realizado “3.133” actuaciones de control e inspección en centros; se han revisado “34.108” prestaciones; y se han visitado “5.883 hogares”. Asimismo, “98 millones de euros” prestaciones, convenios o subvenciones fueron fiscalizados, de los cuales se ha solicitado la revisión del “1,87%”.

Murillo ha detallado las principales magnitudes del informe, pasando de soslayo por las relativas al primer bloque, dedicado a los datos de inspección y control de las instalaciones de los centros de los servicios sociales del territorio, ya que dichos datos



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ya se ofrecieron como “avance” en una comisión celebrada el 22 de febrero. Murillo ha recordado, sin embargo, que se inspeccionaron “todos” los centros que están bajo su tutela, lo que supuso “un incremento del 10%”, y que llegaron a revisarse el “5%” de los Planes de Atención Individualizada (PAI).

En relación con el segundo bloque del informe, el referido al control de la atención y el cuidado en los centros, el diputado foral ha resumido que se llegaron a realizar “2.592 seguimientos”, lo que supuso un incremento del “28%” respecto a lo previsto. En relación a los centros de mayores, se ejecutaron “324 actuaciones”, por encima del 5% que se había pronosticado. En los centros de discapacidad, que en 2020 no fueron inspeccionados por culpa de la pandemia, se ha cumplido el objetivo de inspeccionar “un 10%” de ellos. En cuanto al servicio de Infancia, se han llegado a comprobar la situación de “1.556” menores, de los cuales 1.186 se encontraban acogidos en residencias y 370 con familias. En cuanto a los centros de mujeres, la inspección ha sido del 100%, alcanzando el “91%” -259 casos- en los programas que atienden a las personas que se encuentran en riesgo de exclusión.

En cuanto a los cuidados en el hogar (tercer apartado del informe), el departamento de Acción Social ha realizado “5.883 revisiones”, lo que supone el “27%” de las personas perceptoras de alguna ayuda, por encima del objetivo marcado a inicios de año que era revisar una de cada cuatro residencias. En este chequeo se han encontrado “241 incidencias”. Éstas suponen el “4%” de las inspecciones realizadas, un porcentaje que queda dos puntos por debajo del año precedente.

Murillo ha hecho un parón en su intervención ante los grupos para detallar la tipología de estas incidencias. “La mitad” de ellas tuvieron un carácter “administrativo” principalmente provocado por cambios en la titularidad de las personas cuidadoras. En “38” casos se actuó de urgencia y en “10” se actuó por riesgo de que hubiera malos tratos. Finalmente, sólo en un caso se confirmó que hubo maltrato en el hogar. Además, en “50” visitas (el 0,85% de las inspecciones) detectaron “sobrecarga” de las personas cuidadoras. Supone una “notable” reducción respecto a años precedentes: “76” casos, en 2019, y “91”, en 2022. Murillo ha apuntado también que el año pasado “no se remitió ningún caso a Fiscalía”.

En cuanto al cuarto y quinto apartado, dedicado a controlar por un lado las prestaciones sociales y, por otro, la financiación que llega al sector terciario mediante convenios y subvenciones, el departamento ha solicitado diferentes partidas para ser devueltas debido a anomalías en el fin de los recursos. Así, en las “34.108” revisiones de las prestaciones sociales, que supusieron chequear “más de 69 millones” (tres más que en 2020), se ha solicitado a sus destinatarios que devuelvan “1.605.515 euros”. Estas fueron el 2,41% de las revisadas frente al 3,12% del año anterior. Además, “casi 29 millones” -28.950.508- fueron objeto de revisión de las cantidades entregadas en



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

convenios y subvenciones. La petición de reintegro alcanzó el “0,81%”, o sea 233.646 euros.

A instancia de algunos grupos junteros, Murillo se ha comprometido a publicar en internet los últimos planes de inspección. Preguntado por la diferencia porcentual de las inspecciones en función de su tipología, el diputado ha matizado que se revisan el 100% de los centros pequeños y que con el resto se inspecciona un porcentaje “razonable” que da “una aproximación suficiente de lo que sucede” para poder actuar. Respecto a los planes especiales por la pandemia, Murillo ha señalado que “algunos ya no tienen sentido” por la propia evolución de los contagios y sus consecuencias, aunque se mantienen los cuatro técnicos PCI encargados de inspeccionar las residencias.

BALANCE DEL IFAS Y DEL INSTITUTO TUTELAR DE BIZKAIA

Por otro lado, la comisión ha aprobado por unanimidad, y a petición de EH Bildu, la comparecencia de las personas responsables de las entidades forales del IFAS y del Instituto Tutelar de Bizkaia para que informen de sus proyectos, desarrollados y previstos, de la presente legislatura. Estos responsables vendrán acompañados del diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo, ya que todos los grupos de la Cámara han acordado también su presencia en la misma sesión a petición de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.